

PREMIE

Logotipoa erabiltzeko
aginduak





Bizkaiko Foru
Aldundia

Ekonomi Sustapen
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Promoción
Económica





**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Ekonomi Sustapen
Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Promoción
Económica

PREMIE logotipoa Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Sailaren berriazko jabetza da Patente eta Marken Espainiako Bulegoan erregistratuta dagoen Marka erako aurkezpenaren ondorioz.

PREMIE logotipoaren erabilerak baieztatu eta ziurtatu egiten du hori erabiltzen duen enpresa Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Sailaren PREMIE enpresen erregistroan inskribatuta dagoela, hau da, maiatzaren 28ko 103/2002 Foru Dekretuan eta diplomaren emakidari buruzko Aginduan ezarri denarekin bat.

Aipatu den erregistro horretan inskribatuta dauden enpresek baino ez dute logotipoa erabiltzeko baimena.

Logotipoaren erabilerak nahitaez eskatzen du PREMIE hitzaren agerpena, non-eta eskuineko ertzean, eta baita erregistroko zenbakiak agertu behar duela ere, kasu honetan logotipoaren buruan, hau da, dokumentu honen hasieran ezarri den bezala.



PREMIE logotipoa erabiltzeko gomendioak

Logotipoa inprimaki, publizitateko liburuxka, katalogo, albaran, faktura, gutun, fax eta abarretan kopia daitezke, baldin eta enpresaren izenari lotuta bada eta PREMIE erregistroko zenbakia agertzen bada.

PREMIE logotipoa ezin da erabili PREMIE erregistroko zenbakiari lotuta egon gabe. Halaber, PREMIE erregistroko zenbakia ezin da erabili PREMIE logotipoari lotu gabe.

PREMIE logotipoa ezin da zuzenean kopia produktu edo produktu horiek enbalatzeko materialen gainean.

PREMIE logotipoa garraiorako ibilgailu, kamioi eta abarretan jar daitezke ondoko kasu hauetan:

- Garraioen arloko enpresetan.
- Jarduera nagusizat garraioa eduki ez arren garraibide propioak erabiltzen dituzten enpresetan, beti ere garraio horren erantzukizuna PREMIE enpresa erregistratu batena denean.



Koloreak, tamaina eta letra mota

PREMIE erregistroan sartuta dauden enpresek programako logotipoa kopia dezakete hala kolore berde korporatiboan nola beltzean.

PREMIEren kolore korporatiboa berdea da:

- Pantone 568 zenbakia.
- Kuartikomia Cyan % 89 - Magenta % 5 – Horia % 74 – Beltza % 28

Erregistro zenbakian erabili behar den tipografia Tecno Regular da eta PREMIE testuarena Bodoni Bold.

Erregistroko zenbakia beti izango da beltza.


Zuri-beltzean aplikatzeko PREMIE logotipoa beltzean kopiatuko da % 100ean.

Erabiliko den tamaina Aldundiak jatorriz ematen duenarekiko proportzionala izango da.



Enpresa erregistratu bakoitzari PREMIE logotipoa emango zaio, PREMIE erregistroan inskripzioa egiten duen unean bertan. Hiru artxibo izango dira:

- EPS artxibo bat, XXX.eps izena izango duena, moldiztegi guztietan erabili ahal izateko.
- TIF artxibo bat, XXX.tif izena izango duena, enpresak berak erabiltzeko PC inguruneetan.
- Beste JPG artxibo bat XXX.jpg izena izango duena, besteak beste html orrien sorkuntza eta abarretan erabiltzeko.



PREMIE logotipoaren okerreko erabilera

Enpresa batek PREMIE logotipoaren okerreko erabilera egin duela uste izango da enpresa hori ez dagoenen Ekonomi Sustapen Sailaren PREMIE enpresen erregistroan inskribatuta edo enpresa horren erregistroa aldi baterako etenda dagoenean edo horri erregistroa behin betiko kendu zaionean.

PREMIE logotipoaren erabilerari buruzko kontsultak

Dokumentu honetan zehaztu diren erabileretatik aparteko beste erabilera batzuetarako edo, oro har, okerreko interpretazioren bat eragiteko modukoetarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Sailaren iritzia eta baimena beharko da. Horrelako kasuetan, aintzat hartua eta aztertua izan dadin, burutu nahi den erabilera horren lagina aurkeztu beharko da.



PREMIE logotipoa babesteko gunea

PREMIE logotipoak, bere inguruan, babesteko alde batzuk ditu. Alde horiek logotipoan linean agertzen den karratuaren zabalera neurriaren erdia dira. Espazio horretan ezin da beste inolako testu edo logotiporik jarri.

